

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ingurumenak ehiza-fauna harrapatzeagatiko ibilgailuen aseguru berrikustea eta estaldura bermatzea gomendatzen du

*Martxoaren 1ean estatuko araudia indarrean sartuko da Nafarroan; haren arabera, ibilgailua gidatzen duen pertsonari egozten zaio eragindako kalteen erantzukizuna*

Jueves, 18 de febrero de 2016

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak Foru Komunitateko gidariei beren aseguru-polizak berrikus ditzaten gomendatzen die eta, hala badagokio, ehiza-espezieak harrapatzeen ondorioz eragindako kalteen estaldura jaso dezatela (basurdea, orkatza eta azeria); izan ere, martxoaren 1etik aurrera, asteartea, Nafarroan trafikoko estatu-mailako araudia indarrean sartuko da; haren arabera, ibilgailua gidatzen duen pertsonari egozten zaio eragindako kalteen erantzukizuna

Arau orokor modura, ezingo zaie kalte-ordaina eskatu ehiza-barrutiei edo Nafarroako Gobernuari berari, gaur egun gertatzen den moduan.

Arau honen salbuespenen artean dago ehiza-faunaren istripuak honako hauen ondorioz eragin izana: taldean egindako ehizaldia, irekitako hesiak edo seinale eskasak egotea istripu-maila handiko zatietan. Gainera, ehizakoak ez diren fauna basatiko espezieak edo mehatxatutako espezieak (azkonarra, putrea...) tartean dauden ezbeharretan erantzukizuna Ingurumen Departamentuarena izaten jarraituko du.

### Lege-aldaketa Nafarroan

Aldaketa horren jatorria estatuko Trafiko Legearen jatorrian dago (6/2014 Legearen xedapen gehigarria); haren arabera, bide publikoetan ehiza-espezieak harrapatzeagatik eragindako kalteen erantzukizuna ibilgailuaren gidariari egozten zaio, bertan sartutako animalien balioagatiko erreklamazioa egiteko aukerarik izan gabe.

Ehiza eta Arrantzako Foru Legeak erantzukizuneko bestelako araubide bat ezartzen zuen, eta Ingurumeneko Departamentuak bere gain hartzen zuen, kasu gehienetan, ezbeharretan sortutako kalteen ordainketa. Gidaria erantzule zen soilik trafikoko arauak ez zituela bete egiaztatzen bazen (abiadura desegokia, gida-baimenik gabeko gidaria...).

Estatuko lege berriari egokitzeko asmoz, autonomia erkidego guztietan aplikagarria dena, Nafarroako Gobernuak aldaketa 2016ko Aurrekontuen Foru Legean jaso zuen (29. xedapen gehigarria), nahiz eta indarrean otsailean sartu beharrean (aurrekontuko arau guztiak bezala), martxoaren 1era atzeratu zen ibilgailuetako titularrek beren aseguru-polizaren estaldura egokitzeko erraztasunak izan zituzaten, hori egitea

beharrezkoa balute.

Arrazoi hori dela eta, egoera hori estalita ez badute, Departamentuak dagozkien aseguru-konpainiekin harremanetan jartzeko gomendioa egin die.

### **Salbuespenak eta erantzukizuna**

Trafikoko Legearen erreformak bi salbuespen baino ez ditu ezartzen gidariak kalteak ordaintzeko erantzukizun hori izan ez dezan.

Lehenik eta behin, harrapatzea honako honen ondorio zuzena izatea: "Ehiza larriko espezie baten taldekako ehiza-ekintza bat egitea egun berean edo hamabi ordu lehenago amaituta izatea". Kasu horretan, ehiza-aprobetxamendu edo lursailaren jabetzako titulartasunaren erantzule izango da.

Beste salbuespen bat: ezbeharra "itxiturako hesia epearen barnean konpondu ez izanaren ondorioz gertatzea edo, hala badagokio, ibilgailuen talkagatik istripu-maila handiko zatietan animaliak aske daudela adierazteko seinaleak ez jartzeagatik". Kasu honetan, erantzukizuna bideko titularrena izango zen.